

**LANGILE
IKASTOLAKO
HEZKUNTZA
PROIEKTUA**

LABURPENA

1. LANGILE IKASTOLAKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA HISTORIA , IBILBIDEA.

- Lehen gela 1970ean sortu zen, guraso talde bat eta irakasle jakin batzuen ekimenez, ordu-arte eskola mota (*eskola tradizionala*) gainditzeko borondatearekin.
- 1976tik aurrera kooperatiba gisa legezatu eta LANGILE izena hartu zuen. Une horretan argi eta garbi finkaturik geratu zen : herri eskola izatea, elitismo guztiak baztertuz sektore guztiei irekia, , eta auzoetan ere egotea.
- 1993an Langile Ikastola sare publikoan sartu zen.
- Ordura arte OHOk eskaintza izan zena (2urtetik 14 urte bitarte), 1996an DBH-ren ezarpenaren ondorioz, Ikastolaren proiektua 16 urte arte luzatu zen, beti ere bere identitate ezaugarriak garatuz.
- 2009.an, ikastolako komunitatearen partetik 16 urte bitarteko proiektuarekin jarraitzeko ahalegin ugari egin arren, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Hernaniko DBH publiko guztiak Institutuarekin bat egin zuten, ikastetxe bakarra sortuz; Horren ondorioz Langile Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea da.

INSTALAZIOAK

Gure ikastetxea hiru guneean kokatua dago:

- **Meabe**
Haur Hezkuntzako 2,3 eta 4 urteko ikasleak daude bertan.
- **Bidebieta**
Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleak daude bertan.
- **Laubidieta**
Lehen Hezkuntzako maila guztiak daude bertan.

KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Langile ikastola Hernani herrian dago, Urumea bailaran, hegoaldera Nafarroa duela, eta iparraldea Donostia. Nortasun propioa duen 20 000 mila biztanle inguru dituen herria da. Donostia, hain gertu izanik eta duen irakaskuntza eskaintza zabala den arren, herritarren % 93,26 (2015-2016 ikasturtea) herrian ikasteko aukera egiten du.

Langile Ikastolak herri osoko ikasleak jasotzen ditu, izan ere, Hernanik hezkuntza barruti bakarra du eta herri erdialdeko zein auzo guztietako ikasleak jasotzen ditu. Hau horrela izanik, familien aukeraketa ikastolaren kokalekuak baino garrantzi handiagoa du ikastolak eskaintzen duen proiektuak.

Ikastola, herrian dagoen maila sozioekonomikoaren isla da; batz bestea maila ertaina eta ertaina altuko ikasleak jasotzen baititu. Hizkuntzari dagokionean, une honetan, ikastolako euskal hiztunen kopurua gehiengoa dela esan genezake.

2. METODOLOGIA

2.1. PRINTZIPIO, BALORE ETA HELBURUAK

Pertsona guztiek beren burua errealizatzeko eta garatzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko, lan egiteko eta arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko **oinarrizko eta zeharkako konpetentziak** behar dituzte.

Konpetentzien araberako Hezkuntza prozesua bultzatzen dugu eta printzipio eta balore hauetan oinarritzen gara:

- **Eskola komunitateko kideen arteko errespetua.**

Errespetuaren gakoa eskolan elkarrekin bizi direnen arteko harremanek definitzen dute. Nahitaezkoa da irakasle eta ikasleen arteko harremanetan entzute aktiboa eta ikasleen partaidetza bermatzea. Horrez gain ikaslearen autonomia garatzea, generoen arteko berdintasuneko harremanak sustatzea eta kultur artekotasuna bultzatzea.

- **Hezkidetzak.**

Tradizioz, balore batzuk gizonezkoenak eta beste batzuk emakumezkoenak direla esan bada ere, eskola honek ez du horrelako bereizketarik egingo eta ikasle bakoitzaren balore, ahalmen eta ezberdintasunak onartuko ditu, jeneroaren estereotipoak gaindituz. Emakumeenganako indarkeriaren prebentzian, harreman pertsonalen funtzionamenduan oinarrituz, gatazken konponbidea elkarrizketan oinarrituko da, eta sexuen berdintasuna eta aniztasuna errespetatzen duten harremanak bultzatuko dira.

- **Hezkuntza prozesua integrala**

Gure ikastolak, hezkuntza, elkarrekintzan oinarritzen den prozesu dinamiko bezala ulertzen du, non, ikasle bakoitzaren ahalmen afektibo sozial eta intelektualak garatzen dira. Ikaslea hezkuntza prozesuaren protagonista izango da beste ikaskideekin lankidetzan.

- **Inklusibitatea**

Haur guztiek hezkuntzarako sarbidea izango dutela bermatzea da defendatzen dugun eskola inklusiboaren ezaugarri nagusia, baina hezkuntza horrek kalitatezkoa izan behar du, aukera berdinak emango dizkiena ikasle guztiei.

Aniztasuna zaintzeko modu inklusiboan, ikaslea ezagutu, errespetatu, onartu, balioetsi eta dituen desberdintasun edo diferentzia indibidual eta kultural horiek guztiak landu behar dira.

- **Herrian txertatuta askatasunerako heziaz**

Eskolak ikasleak ingurune sozial eta kulturalarekin harremanetan jarriko ditu, herritar kritiko, erantzule eta solidarioa izan daitezen bultzatuz.

- **Ikasketa esanguratsua eta funtzionala**

Eskola etengabeko ikerketa leku izango da, pentsamendu zientifikoa landuz. Hezkuntza Proiektua aberastuko duen zenbait Pedagogi berrikuntza bildu eta bereganatzeko prest agertuko da.

- **Irakasle eta ez-irakasleen prestakuntza iraunkorra**

Irakasle eta ez-irakasleen prestakuntza iraunkorra sustatuko da, pedagogia ildo orokorretan nahiz espezializazio mailan. Halaber, beste esperientzia eta pedagogia berrikuntzarako mugimenduekin harremanak sendotuko ditu.

- **Euskalduna**

Euskara ikasketa hizkuntza izateaz gain eskola bizitzako hizkuntza izango da. Horrez gain ikasle eleanitzak trebatzearen alde lan egingo du.

Euskal kulturaren ezagutza zabalduko du herrian partaide eta eragilea izanik .

Euskalduntze prozesua bultzatzeaz gain, gurasoekiko komunikazio bide eta aukera egokiak eskainiko ditu.

- **Parte hartzailea**

Ikastetxearen gestioa demokratikoa eta parte hartzailea izango da. Eskola komunitatea osatzen duten estamentu guztiek ordezkaritza izango dute. Era horretan Heziketa prozesuan hainbat gaien erabakiak elkarrekin hartuko dira.

- **Ingurumenarekiko errespetua**

Ikasleak, naturaz bere osotasunean, aberastasunean eta edertasunean gozatzeko, bizitzeko eta esperimintatzeko eskubidea du. Gaur egungo etengabeko garapena bultzatzen duen ereduaren aurrean, natura osoa eta bertan gauden bizidun guztiak errespetatuko dituen kultura zabaltzeko konpromisoa hartzen du eskolak.

2.2. METODOLOGIA EZAUGARRIAK

GELAKO ESPAZIOAREN ANTOLAKETA: txokoak, tailerrak

TXOKOAK

HH hasieratik LH4. maila bitartean txokotan antolatzen da gela. Txoko bakoitzak espazio fisiko propioa du, dagokion materialez hornitua. Materiala komuna da, txoko bakoitzean landuko denari egokitua , konpartitzen da , ikasleen eskura dago, eta guztien ardura da behar bezala zaintzen ikastea.

Txoko dinamikatik **kanpo** geratzen dira Psikomotrizitatea, Gaztelania eta espezialistekin lantzen diren arloak (Musika, Gorputz Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntza).

Lanaren antolaketa

HHn lanaren antolaketaren ardatza ikasle bakoitzaren interesetatik abiatzen da, txokoetan garatuz.

LH1-2n lanaren antolaketaren ardatza Gaiak dira, txokoetan garatuz LH3-4ean lanaren antolaketaren ardatza Unitate Didaktikoak dira eta txokoetan garatzen dira.

Irakaslearen zeregina

Ikaskuntzak egitura globala izateko, irakaslearen ardura izango da aldez aurretik hauek antolatu eta planifikatzea, hezkuntza-ekintzak prestatzea, eta ebaluatzea. Era berean, jardun espontaneoak egiteko, eguneroko bizitzako gauzak deskubritzeko eta, besteak-beste, jakin-mina pizteko aukerak eskaintzea.

ikasgelan behaketatik abiatuta, arretaz entzun, eta beharrezkoa denean soilik esku hartu behar da. Testuinguru anitzak eskaini behar dira ikasleak askatasunez hautatzeko aukera izan dezan.

TAILERRAK

LH5 eta LH6. mailetan, Hizkuntzak, Matematika eta Ingurunea tailerka antolatzen ditugu. Tailer bakoitzak espazio fisiko propioa du, dagokion materialez hornitua, non arloak osotasunean lantzen diren: behatuz, manipulaturik, ikertuz, eztabaidaturik.

Lanaren antolaketa

Lanaren antolaketaren ardatza Unitate Didaktikoa da eta lantratuaren bidez gauzatzen da.

Lantraturik irakasleak ikasle taldeari epe baterako aurkezten dion lan plangintza da. Tresna irekia da. Lantratuaren kudeaketa ikasleen arduraren eta autonomian oinarritzen da irakaslearen gain-begirada eta laguntzaz. Lantratuaren bidez oinarritzeko eta zeharkako kompetentziak lantzen dira.

Azken xedea

Irakasleak Unitate Didaktiko bakoitzaren bukaeran egin behar duen lana da. Bertan, Unitate Didaktikoan landutakoa islatzen du. Lanari funtzionalitatea ematen dio azken xedek, eta egoera errealean oinarritzen da ahal denean.

Irakaslearen zeregina

Tailerretako irakasleak, ikasleen interesak aprobetxatu eta berrietara bultzatzeko arduradun da. Lanaren helburua garbi adieraziko du, eginkizunak bultzaturik, bideraturik, animaturik eta behar denean argiturik.

Bere zeregina izango da, baita ere, taldearen eta kide bakoitzaren ebaluazioa egitea.

IRAKASLEAREN FUNTZIOAK

Irakasleek taldean lan egiten dute; eta gure metodologian esku hartzeko diseinu propioa antolatua dute:

Irakaslea tutore bezala.

Irakaslea arloko arduradun.

Ekipoko (mailako) irakasle taldea.

ELKARLANAREN SUSTAPENA

Eskola honen historian elkarlana ardatzetako bat izan da, eta eskola komunitateko partaide guztien arteko elkar trukatzeko eta elkarriketarako oinarritu da, nahiz ikasle, guraso edo irakasle.

ADIMEN EMOZIONALA ETA ELKARBIZITZAREN GARRANTZIA EGUNEROKOAN

Errespetuaren gakoa eskolan elkarrekin bizi direnen arteko harremanak definitzen dute. Haur Hezkuntzatik hasi, eta LH6 bitartean proiektu eta ekintza ugari dago gure egunerokoan txertatua: tutoretza saioak, Psikomotrizitate praktika , hezkidetzak ekintzak Guzti hauen helburua da ikasleak gaitasun emozionalean trebatzea , ongizate pertsonal eta sozialerako bizi-trebetasunak garatzeko.

HARRERA PLANAK

Lehen eskolaratzea:

HH2

Ekainean familiak bilera batean egokitzapen prozesuaren berri jasotzen dute. Iraila hasieran egokitzapen prozesua martxan jartzen da, eta bataz beste hilabeteko iraupena du. Ahalegin berezia egiten da norbanakoaren prozesua errespetatzen.

Ikasle berriak

Ikastolari buruzko informazio orokorra ematen da matrikulatzeko garaian.

Ikasle berriaren ongi etorria prestatzen da, eta beharrezkoa duenean, indartze saioak jasoko ditu.

METODOLOGIAREN TRANSMISIOA

Bi modutan egiten da: **irakasleen artean; eta irakasle eta guraso artean.**

Irakasleen arteko metodologia transmisioa ziurtatzeko, maila desberdinetako bilerak egiten dira. Gurasoei dagokienez, berriz, hiruhilabetekoan bitan, Gela Bilerak izaten dira. Bertan, unean, uneko informazioaz gain, arloak lantzeko erabiltzen den metodologiaren berri ematen da.

IKASLEEN PARTE-HARTZEA

Ikastolaren ibilbidean, partaide guztien ahotsa entzutea lehentasunezko helburua da. Ikasleen hezkuntzan ere ohiko jokamoldea da.

ikasleen iritzia entzungai jartzeko, eta erabakiak ahalik eta gehien iritzia kontutan izanda hartzeko, besteak beste hainbat ekintza motak daude egunerokoan txertatuak: Bilguneak, ordezkari bilerak.

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Haur guztiek hezkuntzarako sarbidea izango duen eskola inklusiboa eta kalitatezkoa defendatzen dugu,hau da, aukera berdinak emango dizkiena ikasle guztiei.

Aniztasuna bultzatzeko modu inklusiboan, ikaslea ezagutu, errespetatu, balioetsi eta dituen ezaugarri indibidual edo kultural horiek guztiak landu behar dira bai bakarka, baita taldean ere.

EBALUAZIOA : PROZESUEN BEHAKETA

Ikasleak ebaluatzearen **eginkizuna** da haien ikaste-prozesuari eta prozesu horren emaitzei buruzko informazio adierazgarria eskuratzea, zer baliabide eta konpetentzia lortu dituen jakiteko.

Oinarrizko **konpetentzia guztiak**, zehar-konpetentziak eta diziplina barnekoak, **ebalatu behar dira** , guztiak baitira beharrezko hezkuntza-xedeak erdiesteko.

Behaketa zuzena eta sistematikoa da ebaluazio-tresna egokiena , hezkuntzako esku-hartzea erregulatzeko aukera ematen duen aldetik. Ebaluazioa, dinamikoa eta jarraitua izan behar du; eta ikaslearekin eta familiarekin partekatua.

3. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA KUDEAKETA ORGANIGRAMA

